

**Gazte literatura**

*Larunbatean Bukowskin.*  
John Andueza.

Elkar, 2012.  
214 orrialde.



## Rock and love

HAUXE DA John (edo Jon) Anduezen gazte literaturako lehen lana, eta azalean ageri den Lander Ayllónen irudian ikus daitekeen bezala, gaur egungo gazte modernoan edo gazte tribuen inguruko istorioa dela esan genezake. Aipu bat dugu izenburua, eta bi paratestu horiek, azaleko irudiak eta izenburuak irakurlea erakartzeko eginak daudela ematen dute. Barneko orrietan murgiltzean, berriz, gazte horien mundua islatzeko apustua ikusten da; gazte hizkera, beren eguneroko istorioak, mundua beren ikuspegitik kontatu nahi izatea... hots, irakurle gaztea identifikatua senti dadin eginiko lana.

Anduezen lehen lan honek ikasturte hasiera batekin ekiten dio kontakizunari: “Irailak zazpi. Goizeko bederatiak laurden gutxi. Xato autobusetik jaitsi da, erdi lotan, aharrasika. Aitor Bergaretxe deitzen da, baina jaioberritan amamak sententzia harrigarria bota zion:

“Itsusi amorratua zara! Satorra ematen duzu!”.

Eta ikus daitekeen bezala politikoki zuzenetik ihes eginez ekiten dio egileak narrazioari. Xato dugu, beraz, istorioaren protagonista nagusia, eta bere egunerokoa jasotzen direnak biltzen dira nobelan zehar, eta horien guztien artean nabarmentzeko modukoa da neska eder batekin eta ezkutuan eginiko grabazio baten ondorioz gertatutakoekin erlazionaturikoak. Horrek, Nereak jasandako erasoak, marka-

tuko du neurri handi batean liburuaren bigarren zatia. Lehena egunerokoak kontatzen eta egoeren deskribapenera mugatzen den neurrian, liburuak bestelako erritmoa eta jakin-mina sorrarazten ditu nesken dutxan eginiko grabazioaren ondorioz, eta Xatok bi neskarekin, Pipi eta Nerearekin mantentzen duen harremana dela eta.

*Larunbatean Bukowskin* nobela honek gorabehera handiak ditu, gazteen hizkera eta egunerokoa islatzen du eta kapituluaren egiturak, ugari eta laburrak, laguntzen du irakurketa azkarra egiten; gazteen interesak eta kontuak azaltzen ditu eta narrazioan elkarriketak pisu handia du, bizitasun handia emanez testuari, eta hori kapituluaren izenburuetan ere ikus daiteke: “Esaiozu euriari”, “Marraketx fuxion”, “Gros and roll”, “Xato’s song”,...; baina, bestalde, argumentua nahiko sinplea da, aurreikus daitekeena: pertsonaien garapen urria, ez da ikusten nobelak aurrera egin ahala aldaketarik hauengan; eta amaiera, zoriontsua, ez dagokio –nire ustez– nobelaren tonuari.

Edozein modutan azkar eta di-da batean irakurtzen den nobela entretenigarria dugu Anduezen lan hau, ongi idatzia eta irakurle gazteek gustura irakurriko dutena. ■

**Xabier Etxaniz Erle**



Pamiela argitaletxeak,  
Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

## JUAN ZELAIA


### XII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 € · Bidaltzeko epea: irailaren 30a arte**

**Lanak bidaltzeko:** Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria),  
Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea - 31013 Iruñea

☎ 948 326 535 · soltxate@pamiela.com · Arauak: [www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)



**2012**